

**PARQUE TECNOLÓGICO-TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A.-REN  
ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ESTATUTUA**

**I. KAPITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua Xedea**

Estatutuaren xedea Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren jarduera-printzipioak, antolaketa eta funtzionamendurako oinarritzko arauak eta kideen jokaera-arauak ezartzea da. Hori guztia, kudeaketa eraginkorragoa lortzeko helburuarekin.

**2. artikulua Aplikazio-eremua**

Sozietateren Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsona guztiei aplikatuko zaie Estatutua eta derrigorrez bete beharko dute; beren izaera espezifikoarekin bateragarriak diren heinean, Sozietatean zuzendaritza karguak betetzen dituzten pertsona horiek ere bai, nahiz eta kontseilukide ez izan, fideltasun, leialtasun eta sekretu betebeharrekin loturiko alderdi horiei guztiei dagokienez.

Halaber, berez eta edozein arrazoi dela bide, nabaritasun handiago edo txikiagorekin administrazioan erantzukizunak dituztenei aplikatuko zaie Estatutua.

**3. artikulua Indarrean sartzea eta aldaketak**

Estatutua Administrazio Kontseiluak onesten duen datan sartuko da indarrean.

Administrazio Kontseiluari dagokio Estatutuan aldaketak sartzea karguan dagoen Presidentetzak edo Kontseiluko hiru kidek hala eskatuta, aldaketok beharrezko edo egoki bihurtzen dituzten inguruabarrak daudela uste badute.

Estatutua aldatzeko eskaera oro arrazoitu beharko da eta horretarako, proposamen-testuarekin batera, proposatzen den aldaketaren arrazoiak eta norainokoa justifikatzen duen txostena aurkeztu beharko dute eskatzaileek.

Estatutua aldatzeko proposamenaren gainean hausnartu eta erabakiak hartu beharko dituen Kontseiluaren bilerarako deialdia hamar egun natural lehenago egingo da, gutxienez. Deialdiari proposamen-testua eta justifikazio-txostena erantsi beharko zaizkio.

#### **4. artikulua Interpretazioa**

Aplikagarri diren legezko eta estatutu-arauei jarraiki interpretatu beharko da estatutua.

Gobernu korporatiboari dagokionez, informazio, gardentasun eta segurtasunerako oinarrizko betebeharrak nahitaezko printzipio izango dira arau hauek interpretatzeko.

Administrazio Kontseiluari dagokio Estatutua aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen interpretazio-zalantzak argitzea.

#### **5. artikulua Hedapena**

Kontseilukideek eta Sozietateko goi-zuzendaritzako karguak dituzten pertsonak, aplikagarri zaizkien alderdi horiei dagokienez, Estatutua ezagutu, bete eta betearazi beharko dute. Horretarako, Kontseiluko idazkariak Estatutuaren ale bat emango die izendatuak edo, kasuaren arabera, kontratatuak diren unean.

Estatutua eta, hala badagokio, bertan egindako aldaketak Sozietatearen web orrialdean argitaratuko dira.

## **II. KAPITULUA KONTSEILUAREN OSAKETA**

#### **6. artikulua Osaketa**

Akziodunen Batzar Nagusiak, indarrean dauden legezko eta estatutu-aginduei jarraiki, Administrazio Kontseiluak izango dituen kide kopurua ezarriko du, bazkideek hala proposatuta.

Inguruabarrak hala aholkatzen dutenean, bazkideek Batzar Nagusian proposatuko dute Kontseiluan kontseilukide independenteak egotea.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez indarrean dagoen legeriari jarriki, bazkideek Batzar Nagusian proposatuko dute Kontseiluan emakume eta gizon kopurua orekatua izatea.

Artikulu honetan xedatutakoa ez da oztopo izango legez akziodunei aitortzen zaien ordezkari-tza proportzionalaren eskubidea betetzeko.

### **III. KAPITULUA KONTSEILUAREN EGITURA**

#### **7. artikulua Kontseiluaren Presidentetza**

Administrazio Kontseiluak presidentea aukeratuko du hura osatzen duten pertsonen artean.

Presidenteak du Administrazio Kontseilu biltzeko, bileretako gai-zerrenda osatzeko eta eztabaidak zuzentzeko ahalmen arrunta. Hala ere, presidenteak Kontseilua bildu beharko du hura osatzen duten pertsonen hiru herenek hala eskatzen badute.

Presidenteak ondoko erantzukizunak bere egingo ditu:

- Kontseilukide guztiak bileretara joan daitezen saiatzea; horretarako, Estatutu honetan xedatzen den moduan eta epeetan bidaliko dira deialdiak.
- Kontseilukideren bat behin baino gehiagotan Kontseilura bertaratzen ez denean horren zioak egiaztatzea.
- Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratzea, ebaluaziotik eratortzen diren hobetze-proposamenak martxan jartzea, hala dagokionean, edo hautemandako eraginkortasunik eza zuzentzea.

#### **8. artikulua Kontseiluaren Presidenteordetza**

Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsonen artean presidenteorde bat baino gehiago izendatu ahalko da. Presidenteordea ordezkari-tzako dute honek ezin badu edo bertaratu ez bada, eta oro har, Kontseiluak edo presidenteak berak egokitzen hartzen dituen funtzioak edo eskudantziak bere gain hartuko dituzte kasu guztietan.

Presidenteorde bat baino gehiago badago, Kontseiluak berak izendapenak egiterakoan adierazitako ordenan gauzatuko dituzte beren funtzioak.

## **9. artikulua Kontseiluaren Idazkaritza**

Administrazio Kontseiluak idazkari bat izendatuko du, kontseilukidea zertan izan behar ez dena.

Idazkariak presidentea lagunduko du bere zereginetan eta kontseilukideei behar dituzten aholkuak eta informazioa emango die, dokumentazio soziala gordeko du, bileren garapena akta-liburuetan islatuko du behar den moduan eta hitzarmen sozialak egiaztatuko ditu.

Nolanahi ere, idazkariak bermatuko du funtzionamendurako arauak egoki aplikatzen eta prozedurak egoki garatzen direla, helburu horretarako arautzen baitute Administrazio Kontseiluaren barne-funtzionamendua.

Akten idazketa eta sinadura prozesua egoki garatzeko ardura hartuko du idazkariak.

Prozedura bat ezarriko da Sozietatearen dokumentazioa eta liburu ofizialak gordetzeari buruz indarrean dauden arauak idazkariak aplikatzen dituela kontrolatzeko eta erantzukizuna duen gobernuaren txostenean jasoko da barne-auditoretzaren emaitza.

## **10. artikulua Kontseiluaren Idazkariordetza**

Administrazio Kontseiluak idazkariorde bat izendatu ahalko du, kontseilukidea zertan izan behar ez dena, eta Kontseiluko idazkaria ordezkatzeko du funtzioak betetzeari dagokionez, honek ezin badu edo bertaratu ez bada.

## **11. artikulua Ordezko kontseilukidea**

Kontseiluak ordezko kontseilukide bat edo gehiago izendatu ahalko ditu, eskuordetzen diren ahalmenak bana-banaka aipatuz edo legez eta estatutuei jarraiki eskuorde daitezkeen eskumen guztiak eskuordetzen direla adieraziz.

Ordezko kontseilukide bat baino gehiago badago, adierazi beharko da modu solidarioan eta modu elkartuan egiten diren ahalmenak zein diren edo, hala badagokio, guztiak edo batzuk modu batean edo bestean egin behar diren.

## **12. artikulua Batzorde Betearazleak**

Edozein kontseilukideri bere kontura eskuordetzen zaizkion ahalmenen kaltetan gabe, Administrazio Kontseiluak Batzorde Betearazleak eratu ahalko ditu, berariaz eskuordetzen zaizkien ahalmenak izango dituztenak.

Administrazio Kontseiluak Batzordeetako kide kopurua, beren izendapena eta kargutik kentzea eta, oro har, Batzordeen erregulazioa zehaztuko ditu.

Batzorde Betearazleen bileretan jorratutako gaien eta hartutako erabakien berri emango zaio Kontseiluari.

Kontseiluak eratutako Batzorde guztiek beren bileren aktak idatziko dituzte, Administrazio Kontseiluak jakinarazitako terminoei jarraiki.

## **IV. KAPITULUA KONTSEILUAREN BATZORDEAK**

## **13. artikulua Administrazio Kontseiluaren Batzorde Operatiboak**

Edozein kontseilukideri bere kontura eskuordetzen zaizkion ahalmenen eta erabakiak hartzeko ahalmen orokorrak dituen Batzorde Betearazlea eratzeko duen ahalmenaren kaltetan gabe, Kontseiluak ordezeko batzordeak era ditzake, jarduera-arlo espezifikoen edo bestelako kontsulta organoen arabera.

Administrazio Kontseiluko presidenteak izendatuko du idazkaria. Presidenteak deialdia egin ondoren bilduko dira Batzordeak. Bereziki aurreikusten ez denari dagokionez, Estatutu Sozialek eta Estatutuak Kontseiluari buruz ezarritako funtzionamendu-arauak aplikatuko dira, Batzorde horien izaera eta funtzioarekin bateragarriak badira.

Kontseiluak eratutako edozein Batzordek bere bileren aktak idatziko ditu Administrazio Kontseiluak jakinarazitako terminoei jarraiki.

## **V. KAPITULUA**

### **KONTSEILUAREN FUNTZIOAK**

#### **14. artikulua Kontseiluaren eskumenak**

Batzar Nagusien eskumenekoak diren gaietan salbu, Administrazio Kontseilua da Sozietatearen organo gorena erabakiak hartzeko, kontrolerako eta ordezkartzarako.

Organo betearazleei eta zuzendaritza-taldeari Sozietatearen kudeaketa arrunta eskuordetzea da Kontseiluaren politika, bai eta bere jarduera gainbegiratze-funtzio orokorrean biltzea ere.

Ezingo dira eskuordetu legez edo estatutuei jarraiki Kontseiluarentzako erreserbatutako ahalmenak, ez eta gainbegiratze-funtzio orokorra modu arduratsuan gauzatzeko beharrezkoak diren horiek ere.

Estatutu Sozialetan ematen zaizkion ahalmenez gain, Administrazio Kontseiluak ondokoaren erantzukizuna hartuko du:

.- Sozietatearen Plan Estrategikoa onestea eta, aldi behin, bere garapen eta aplikazio eraginkorraren maila egiaztatzea.

.- Urteko Kudeaketa Plana onestea, aurrekontuen proposamena barne hartuko lukeena, eta plana egikaritzeari buruzko ebaluazio partzialak egitea.

#### **15. artikulua Enpresaren egoerari eta jarduera garatzen duen inguruari buruzko informazioa**

Kontseiluaren bileren gai-zerrendan egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko puntua jasoko da eta, gutxienez, urtean behin koiuntura ekonomiko orokorraren eta euskal sektore ekonomiko garrantzitsuenen informazio xehatua ere bai.

#### **16. artikulua Inbertsioak egiteko erabakiak hartzeak duen eragin soziala eta ekonomikoa**

Kontseiluak onesten dituen inbertsioei buruzko memorietan inbertsioen eragin ekonomiko eta sozialari buruzko analisia jasoko da, dagokion bileraren akta eta alderdi bakoitzaren gainean Kontseiluak egiten duen balorazioa islatuz.

## **IV. KAPITULUA**

### **KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA**

#### **17. artikulua Kontseiluaren bilerak**

Administrazio Kontseiluak ohiko bi bilera egingo ditu derrigorrez eta gutxienez urtean lau aldiz, hiruhilabete bakoitza amaitutakoan edo hurrengoaren hasieran.

Halaber, Kontseilua ohiz kanpo bilduko da presidentek Sozietatearen funtzionamendu onerako egokia dela irizten duen guztietan, eta Kontseilua osatzen duten hiru herenek hala eskatzen duenean.

Presidenteak, idazkariak edo idazkariordeak, presidentearen aginduz, ohiko bileren deialdia egingo du faxez, telegramaz edo posta elektronikoz.

Deialdia **gutxienez hamar egun natural lehenago** igorriko da gutun bidez egiten bada edo zazpi egun natural lehenago posta elektronikoz baldin bada, kontseilukide bakoitzak horretarako adierazitako helbidera.

Kontseiluaren ohiz kanpoko bileretarako deialdia telefonoz egin ahal izango da, gutxienez 48 ordu lehenago, eta ez dira aurreko paragrafoan adierazitako epea eta gainontzeko baldintzak aplikatuko presidentearen iritziz inguruabarrek hala aholkatzen edo justifikatzen dutenean.

Administrazio Kontseiluaren bilerak normalean egoitza sozialean egingo dira, baina presidenteak zehazten duen eta deialdian adierazten den beste lekuren batean ere egin daitezke.

Aldez aurretik deialdia egin gabe Kontseilua bildu ahal izango da, behin Kontseilua osatzen duten pertsona guztiak bertaratu direnean edo ordezkaturata daudenean, aho batez bilera egitea onartzen badute.

Kontseiluan hitzarmenak idatziz eta bilerarik egin gabe onesteko, ezin da kontseilukideetako bat ere ez prozeduren kontra egon.

Bilera bakoitzerako deialdian bilerarako aurreikusten den gutxiko gorabeherako denbora adieraziko da. Nahikoa izan behar da gai-zerrendako gaiak jorratzeko, behar adina sakonduz, eta galde-eskeei ere denbora gehigarria eskainiko zaie.

Urtean behin, Kontseiluak kideei inkesta bat egingo die bere lanen kudeaketa eta kalitatea ebalua ditzaten. Era berean, urtero gobernu korporatiboari buruzko txostena egingo du eta Batzar Nagusiari helaraziko dio. Azken honek Sozietatearen organoen funtzionamendua ebaluatuko du.

## **18. artikulua Bileren garapena**

Kontseilua behar den moduan eratuta geratuko da, gutxienez kontseilua osatzen duten pertsonen erdia gehi bat bertaratzen direnean edo ordezkatuta daudenean.

Kontseilukideak Kontseiluaren bileretara joan beharko dira eta joan ezin direnean beste kontseilukide batek ordezkaria ditzan saiatuko dira. Ordezkaritza idatziz emango da eta, hala dagokionean, behar diren jarraibideak jasoko dira bertan. Presidenteak, zalantzarik balego, bilerara bertaratu ez diren kontseilukideek emandako ordezkariaren baliozkotasuna erabakiko du.

Presidenteak eztabaida antolatuko du, Kontseilukide guztiek organoaren gogoetetan parte hartu dezaten saiatuko da eta, gaiak nahikoa eztabaidatu direla uste duenean, bozkatzeko aginduko du.

Legeak, Sozietatearen Estatutuak edo Kontseiluaren Estatutuak gehiago indartua eskatzen duten kasuetan salbu, bilerara bertaratutako edo ordezkatuta dauden kontseilukideen gehiago absolutuarekin adostuko dira hitzarmenak. Berdinketa egonez gero, presidenteak kalitatezko botoa izango du.

Bertaratu diren edo ordezkatuta dauden kontseilukideek boz bana izango dute.

## **19. artikulua Kontseiluaren aktak**

Idazkariak egingo du Administrazio Kontseiluaren bileraren akta eta idazkaria ez badago, izendatutako idazkariordeak egingo du. Bietako inor ez badago, kontseilukide gazteenak idatziko du akta.

Kontseiluak berak onetsiko du akta bilera amaitutakoan edo hurrengo bileran.

# **VII. KAPITULUA KONTSEILUKIDEAK IZENDATZEA ETA KARGUA UZTEA**

## **20. artikulua Kontseilukideak izendatzea**

Batzar Nagusiak kontseilukideak izendatu edo berriz aukeratuko ditu, Sozietate Anonimoei buruzko Legean –Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretu bidez onetsitako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bateginean onetsia– eta Sozietatearen Estatutuetan xedatutakoari jarraiki.

Idazkariak kontseilukide berriei jakinaraziko dizkie enpresaren alderdirik garrantzitsuenak, Kontseiluak jorratutako gairik esanguratsuenak, Kontseiluaren Estatutua eta bileren funtzionamendurako mekanismoak.

## **21. artikulua Karguaren iraupena**

Estatutu Sozialetan ezarritako epean beteko dute beren kargua kontseilukideek eta, epe hori bukatutakoan, iraupen bereko edo gutxiagoko aldietarako berriz aukeratu ahalko dira.

Kooptazioz izendatutako kontseilukideek beren kargua beteko dute Batzar Nagusiak lehenengo bilera egiten duen datara arte.

## **22. artikulua Kontseilukideak kargua uztea**

Kontseilukideek kargua utziko dute izendatuak izan zireneko epealdia igarotzen denean edo Batzar Nagusiak, legez eta estatutua betez eman zaizkion eskudantziei jarraiki, hala erabakitzen duenean.

Kontseilukideek Administrazio Kontseiluaren esku utziko dute beren kargua eta, honek egokitzat jotzen badu, dagokion dimisioa formalizatu beharko dute ondoko kasuetan:

- a. Legez aurreikusitako bateraezintasun edo debekurik baldin badute.
- b. Kontseilukide gisa dituzten betebeharrak hausten badituzte.
- c. Kontseiluan jarraituz gero Sozietatearen interesak arriskuan egon daitezkeenean.

**VIII. KAPITULUA**  
**KONTSEILUKIDEAREN BETEBEHARRAK (KODE DEONTOLOGIKOA)**

**23. artikulua Jokaera-irizpideak**

Administrazio Kontseiluak uneoro ondoko irizpideak jarraitu beharko ditu:

- a. Xede soziala betetzea
- b. Sozietatearen bideragarritasuna defendatzea
- c. Sozietatearen balioa areagotzea

Hori guztia gauzatu beharko da erabilgarri dauden baliabideen kudeaketa optimizatuz, langile, hornitzaile eta finantzariekin hitzartutako kontratu guztiak fedez onez betez eta, oro har, Sozietatea modu arduratsuan zuzentzeko berezko betebeharrak etikoak betez.

Antolaketa korporatiboaren esparruan, Kontseiluak behar diren neurriak hartuko ditu Sozietatea Kontseiluaren gainbegiratze eraginkorraren pean dagoela bermatzeko.

**24. artikulua Kontseilukidearen betebeharrak orokorrak**

Kontseiluaren funtzioa Sozietatearen kudeaketa orientatzea eta kontrolatzea da, balioaren sorrera maximizatze aldera.

Bere funtzioak betetzean kontseilukideak interes sozialak lortzeko beharrezko arduraz jokatu du, Sozietatearekiko leialtasun-betebeharrak egoki betez. Bereziki, ondokoa egin beharko du:

- a. Beharrezko denbora eta ahaleginak eskaintzea, Sozietatearen administrazioak planteatzen dituen gaiak erregulartasunez jarraitzeko.
- b. Kontseiluaren bileretara bertaratzea konpromiso pertsonala bailitzan hartzea, gogoetatan aktiboki parte hartuz, bere irizpideak erabakiak hartzerako orduan modu eraginkorrean lagun dezan.
- c. Administrazio Kontseiluak agintzen dion eta bere ardura-konpromisoaren baitan, zentzuzko modu batean, dagoen edozein zeregin espezifiko egitea.

- d. Sozietatearen kudeaketari dagokionez edozein irregulartasunaren berri baldin badu, irregulartasun horiek ikertzea eta edozein arrisku-egoera kontuan hartzea.
- e. Oro har, legeek eta Estatutuak ezarritako betebeharrak betetzea, Sozietatearen interesarekiko fideltasunarekin. Legearen, Estatutu sozialen edo Sozietatearen interesen kontrako hitzarmenen aurka jarri beharko da eta aipatu interesa babesteko, egoki deritzon bere kontraktotasuna aktan jasotzea eskatu beharko du.

## **25. artikulua Konfidentzialtasun-betebeharra**

Bere funtzioak utzi ondoren ere kontseilukideek informazio konfidentzialak sekretupean gorde beharko dituzte. Era berean, kargua betetzearen ondorioz ezagutzen dituzten datuak, txostenak edo aurrekariak isilpean gordeko dituzte eta ezingo dizkiete hirugarrenei jakinarazi edo ezingo dituzte hedatu, horrek Sozietatearen intereserako ondorio kaltegarriak izan baditzake.

## **26. artikulua Gardentasun eta informazio betebeharra**

Kontseilukideen betebeharra da Sozietateari garaiz jakinaraztea erabakiak hartzerako orduan Sozietateari eragin dakizkioken interes partikularrak.

Sozietateak hala eskatuta, kontseilukideak Sozietateari jakinaraziko dizkio Sozietateen kapitalean dituen partaidetza guztiak, Sozietatearen xede soziala den jarduera-genero bera, antzekoa edo osagarria dutenak, bai eta Sozietatean betetzen dituen karguak eta funtzioak ere. Era berean, bere edo besteren kontura Sozietatearen xede soziala den jarduera-genero bera, antzekoa edo osagarria duten jarduerak gauzatzen dituen adieraziko dio.

Halaber, kontseilukideak Sozietateari jakinarazi beharko dizkio bere egoera profesionalean emandako aldaketa esanguratsuak, baldin eta kontseilukide izendatu zenean emandako ezaugarrietan edo egoeran eragiten badute, edo interesen gatazka sor badezakete.

Gainera, bera inplikaturik dagoen edozein erreklamazio juridikoren, administratiboren edo bestelako erreklamazioen berri eman beharko dio kontseilukideak Sozietateari, erreklamazioaren garrantzia dela eta Sozietatearen izen onean eragin larriak izan dezakeenean.

## **27. artikulua Interesen gatazka**

Leialtasun-betebeharrari jarraiki, kontseilukideak ekidin beharko ditu interesen gatazka-egoerak, beraren eta berarekin loturiko pertsonen eta Sozietatearen artean. Ekidinezinak badira, horien berri emango dio Administrazio Kontseiluari. Bereziki:

- Zuzenean edo zeharka tartean gai horietan sartuta badago, kontseilukideak ez du horiei buruzko gogoetetan parte hartuko.
- Kontseilukideak ezin izango du zuzenean edo zeharka zerbitzu profesional edo komertzialengatiko transakziorik egin Sozietatearekin, aldez aurretik interesen gatazka-egoeraren berri eman eta Kontseiluak transakzioa onartu ezean.
- Kontseilukideak ezin du bere edo berarekin loturiko pertsonen onurarako Sozietatearen negozio-aukerarik aprobetxatu. Inbertsioren edo eragiketa komertzialen bat egiteko sorturiko, edo kontseilukideak betetzen duen karguarekin zerikusia duen edo Sozietatearen baliabideez nahiz informazioaz baliatuz aurkitutako edozein aukera hartuko da negozio-aukeratzat.

Kontseilukideek Sozietatearekiko duten leialtasunari jarriki, presidenteari jakinaraziko diote edozein gehiegikeri edo ez betetzeren berri dutenean, bereziki informazio esanguratsu edo abantailatsuren erabilerari buruzkoa bada.

## **28. artikulua Sozietatearen izena erabiltzea**

Kontseilukideak ezingo du Sozietatearen izena erabili, ezta bertako administraria dela aipatu ere bere edo berearekin loturiko pertsonen kontura eragiketak egiteko.

## **29. artikulua Publikoa ez den informazioa**

Sozietateak duen publikoa ez den informazioa helburu pribatuetarako erabili ahalko dute kontseilukideek Sozietatearen kalterako ez bada.

### **30 artikulua. Lotutako pertsona**

Kapitulu honen ondorioetarako, kontseilukideekin lotutako pertsonak ondokoak izango dira:

- a. Kontseilukideari dagokionez, pertsona fisikoa:
  - (i) Kontseilukidearen ezkontidea edo antzeko afektibitate-harremana duten pertsonak.
  - (ii) Kontseilukidearen edo bere ezkontidearen gurasoak, seme-alabak eta anai-arrebak.
  - (iii) Kontseilukidearen gurasoen, seme-alaben eta anai-arreben ezkontideak.
- b. Kontseilukideari dagokionez, pertsona juridikoa:
  - (i) Kontseilukideak eta kontseilukideen –pertsona juridiko gisa– ahalmen orokorren ahaldunak.
  - (ii) Kontseilukidearen –pertsona juridiko gisa– ordezkariak, baldin eta kontseilukideekin lotutako pertsonatzat hartzen badira, artikulua honen a) letran aurreikusitakoari jarraiki.

## **IX. KAPITULUA KONTSEILKUKIDEAREN ESKUBIDEAK ETA AHALMENAK**

### **31 artikulua. Informazio eta ikuskapen ahalmenak**

Sozietatearen edozein alderdiren gainean informazioa eskuratzeko, bere liburuak, dokumentuak eta eragiketa sozialen gainontzeko aurrekariak aztertzeko eta bere instalazioak ikuskatzeko ahalik eta ahalmenik zabalenekin inbestitua izan da kontseilukidea.

Informazio-eskubidea eskumendeko Sozietateetara eta partaidetuetara zabaltzen da.

Sozietatearen ohiko kudeaketa ez nahasteko helburuarekin, presidenteak, presidenteordeak edo, hala badagokio, Kontseiluko idazkariak kanalizatuko ditu informazio-ahalmenak. Pertsona horiek kontseilukidearen eskaerei erantzuna emango diete dagokion erakunde-mailarentzako hizketakide egokiak eskainiz edo neurriak erabakiz, nahi dituzten azterketa eta ikuskapen zuzemenak “*in situ*” praktikatu ahal izateko.

### **32 artikulua. Adituen laguntza**

Bere funtzioak betetzen dituen bitartean laguntza jasotzeko helburuarekin, edozein kontseilukidek bere bileretara joateko aholkulari legal, kontu eramaile, finantzario edo bestelako adituren laguntza kontrata edo eska dezake.

Kargua betetzerakoan aurre egin behar izan dituen eta nolabaiteko garrantzia eta konplexutasuna duten arazoez izan behar da enkargua.

Kontratatzeko erabakia Kontseiluko presidenteari jakinarazi beharko zaio, zeinek betoa jar dakiroke ondokoa egiaztatzen bada:

- a. Ez da beharrezkoa agindutako funtzioak behar bezala gauzatzeko.
- b. Kostua ez da arrazoizkoa arazoak duen garrantzia ikusita.
- c. Sozietatearen aditu eta teknikoek modu egokian eman dezakete eskatutako laguntza teknikoa.

### **33. artikulua Kontseilukidearen ordainsaria**

Kontseilukideek ez dute ordainsaririk jasoko beren kargua betetzeagatik.

Sozietateak erantzukizun zibileko seguru bat kontratatuko du bere kontseilukideentzat.

## **X. KAPITULUA**

### **GOBERNU KORPORATIBOA**

#### **34. artikulua   Gobernu korporatiboari buruzko txostena**

Administrazio Kontseiluak gobernu korporatiboari buruzko informazioa jakitera eman beharko du urtero egiten den jarduera-txostenean.

Aipatu txostenak Sozietatearen gobernu-sistemaren egituraren eta praktikan nola funtzionatzen duenaren azalpen xehatua jaso beharko du. Nolanahi ere, ondokoa izango da gobernu korporatiboari buruzko txostenaren gutxieneko edukia:

1. Sozietatearen propietate-egitura.
2. Sozietatearen administrazio-egitura, Administrazio Kontseiluaren osaketa, antolaketa-arau eta funtzionamenduari buruzko eta kideen nortasunari eta ordainsariari buruzko informazioarekin.
3. Arriskua kontrolatzeko sistemak.
4. Batzar Nagusiaren funtzionamendua, egiten diren bileren garapenaren gaineko informazioarekin.
5. Gobernu korporatiboak egindako gomendioak zein mailatan jarraitzen diren edo, hala badagokio, aipatu gomendioei jarraipena egiten ez zaiela azaltzea.

Gobernu korporatiboari buruz egingo den aurreneko txostena 2010eko ekitaldi ekonomikoari egokituko zaio.